

ASIER HORMAZA



kultura

aldizkaria

A Aurkibidea

Aurkibidea + kultur ekintzak (2-3)

Herri txikian, handiak: Asier Hormaza (4-5)

Palindromoa + denbora pasak (6-7)

Gure langileak: Iker Soto (8-9)

Gure ikasleak: Miguel Faundez Serkirkin + Clousseau Panteragorri (10-11)

"Klima aldaketa txikieria bat da,
zuk bai berotzen nauzula!"

Alex Díez Torre

"Gustatuko litzaidake
begi okerra gelditzea
zu bikoitza ikusteko"

Lide San Martín García

"Zu ez zara *Elebila* baina
bilatzen dudak guztia daukazu"

Maite García De Diego
Mirian Salomon



EUSKAL PIROPOAK

Euskal Piropo lehiaketak euskara modu sortzaile, adierazkor, ez-sexista eta ludikoan erabiltzea du helburu. Jasotako piropo guztien artean originalenak eta dibertigarrienak saritu ditugu.

Aurtengo irabazleak dira:

- Maite García De Diego eta Mirian Salomon
- Lide San Martín García
- Alex Díez Torre



EUSKAL HERRIKO INAUTERIAK

Ziripot, Miel Otxin, Atorrak, Joaldunak... Euskal Herriko Inauteriak ondo ezagutzeko lehiaketa izan dugu euskaltegian.

Parte hartzaile guztien artean Euskal Herriko delicatessen produktuak zozkatuko ditugu eta irabazlea Iñaki Estefania izan da. Txalo bero bat!

kultura

Kultur ekintzak

DONOSTIAKO DANBORRADA

XIX. mendearen hasieratik egin izan da Danborrada Donostian. San Sebastian Egunaren bezperan, gauerdian, 12:00etan puntu-puntu hasten da danborrada, Donostiako Konstituzio plazan, eta Raimundo Sarriegiren San Sebastian martxa jotzen duten bitartean. Gipuzkoako txakolin goxoa zozkatu dugu tradizio honen inguruan ondo jantzita dauden Ulibarriko ikasleen artean eta Juan Zuluaga suertatu da irabazle. Zorionak!



EUSKAL MUSEOA

XX. mendeko emakumeen argazki erakusketara bisita gidatua antolatu dugu Euskal Museoa Ulibarriko ikasleentzat propio. "Bide luzea berdintasunerantz: emakumeak Euskadin XX. mendean" izenburupean, ehundik gora irudi ikusgai izan dira Euskal Museoa.

AGATE DEUNA

Euskal Herriko herri eta auzoetan kalean ibiltzeko ohitura dugu etxez etxe kantuan Santa eskean.

Ulibarri euskaltegian ere tradizioari jarraituz, kantatzeari ekin diogu, otsailaren 4an, Agate Deunaren bezperan. Makilak eskuan hartu, ondo berotu ahotsak eta Agate Deuna koplak lagun artean kantatu ditugu. "Aintzaldu daigun Agate Deuna, bihar da ba Deun Agate..."



aldizkaria

Herri txikian, handiak

Asier Hormaza



Algortan jaioa, antzerki, zinema eta telebistako aktorerik ezagunenetakoa, makina bat proiektutan ikusi izan dugu Asier Hormaza 30 urteko ibilbide luze eta oparoan. Edozein paperetara aise moldatzen den aktore horietakoa, jatorra eta hurbila bezain umila da.

Bizitza osoa interpretazioari eskainia, saririk onena ikusleen esker ona dela dio. Haatik, badira bestelako sariak ere, berriki, Euskal Aktoreen Sarirako, antzerki kategorian, hautagai izendatu dute Dublindarrak antzezlanagatik. Ondo merezitako aintzatespena, duda barik.

Han-hemenka ibiltzen da, erronkaz erronka, baina, hala ere, tartetxo bat eskaini dio Ulibarri K Kultura Aldizkariari, bertatik bertara hobeto ezagut dezagun.

20 urterekin hasi zinen aktore lanetan, "La espada de Pendragón" antzezlanean.

Aktoreak jaio ala egin egiten dira?

Nik uste dut, batetik, ehuneko berrogeita hamarrean koka dezakegula aktore izatearen grina, eta, bestetik, lanaren poderioz eta ekinean nik uste dut aktorea egin egiten dela. Nire kasuan joko bat bezala hasi zen, gaztetatik antzerki zalea nintzen, eta 20 urterekin izan zen nire lehenengo estreinaldia, 1991n. Gaur arte ez dut etenik izan.

Ibilbide oparoa duzu, hamaika antzezlan, film eta telesailetan ibilitakoa zara. Antzerkia, telebista ala zinema? Zein duzu gustukoen?

Gustukoen lan egitea dut. Niri interpretazioa gustatzen zait eta horrek atzetik dakartzan lana, ikerketa eta jokoa. Jokoa da inspiratzen nauena eta gustukoen dudana. Zine, telebista edo antzerkiko kodeekin jokatzeari berdina zait, hirurak ditut gustuko.

Baduzu "ametssetako papera", egitea gustatuko litzazukeena? Ala honezkero eginga duzu ?

Aktore askorentzat, nik ametssetako paperak egin izan ditut: "Ernesto izatearen garrantzia", kasurako, askorentzat oso pertsonaia garrantzitsua da. Orain arte egin ditudan paperen artean oso pozik bizi izan ditut guztiak. Aurrerantzean etortzen diren pertsonaiak denak ere hartuko ditut gustura.

Gustatuko litzazuke zuzendari konkritu batekin lan egitea?

Zuzendari berriak ezagutzea oso gustuko dut, ideia berriekin eta gauzak ikusteko begirada berri batekin etortzen dira. Ate irekiak beti. Orain arte ibilitakoekin ere oso gustura ibili izan naiz, guztiak errepikatu dut, beraiek hala nahi izan dutelako noski, kar-kar.

Lankide bat?

Bat ez, asko. Hemen Euskal Herrian azkenean lagun bihurtu gara. Nik esan dezaket oso lagun onak ditudala ogibidean; izan ere, hainbeste urtetan elkarrekin lanean, hainbeste egoera eta hainbeste denbora elkarrekin pasata, gauza asko konpartitu ditugu, eta azkenean lagunak dira. Azken boladan, Asier Sotarekin eta Joseba Apaolazarekin ibili izan gara "Jokoz kanpo" antzezlanarekin, eta horrek erlazioak estutu egiten ditu. Asier Sotarekin "Dublindarrak" antzezlanean ere elkarrekin gaude... Egoeraren arabera, epe batzuetan batzuekin erlazio handiagoa dut, baina beti ere oso gustura guztiak.

Asier Hormaza

Antzoki bat? Leku berezirik aukeratu beharko bazenu?

Getxoko antzokia obratan izan da eta, hainbat igaro urte eta gero, "ateak zabaldu" ditu. Ilusio handia egin dit berriz ere bertan antzezteak, berezia izan da.

Zein hizkuntzatan erosoago oholza gainean, euskaraz ala gaztelaniaz?

Hasiera-hasieratik bi hizkuntzatan lan egin dut, eta antzezlan guztiak bai euskaraz eta bai gaztelaniaz egin izan ditut. Beraz, berdintsu. Ez nuke esango erosoago nagoela hizkuntza batean bestean baino. Hizkuntza desberdinak dira eta umorea edo drama beste modu batera lantzen dira.



Zein da euskal aktore batentzat saririk preziatuena?

Nire kasuan, Euskal Herrian lan egitea eta bizitzea, nire ogibidea bertan garatu ahal izatea.

Zelan da lan-prozedura? Gidoia jasotzen duzunetik estreinatzen duzun arte?

Desberdinak dira antzerkia, zinea eta telebista, baina hiruretan gidoia jaso, ondo ikasi eta entseguak egin behar dira. Zer esango dut, ba! Buruz ikasi behar da, jakina! Baina esaten ari zaren hori akzioekin eta sentimenduekin lotu behar da. Horrek guztiak bat egiten duenean, hori da interpretazioa.

Tokatu al zaizu inoiz gizendu behar izatea edo giharrak lantzea gidoi-film baterako?

Nik ezingo nuke 30 kilo hartu, ezta argaldu ere! Kar-kar-kar. Horrelakoak oso espektakularrak izaten dira, baina niri kristoren tontakeria iruditzen zait, hori ez da inportanteena. Niri istorioa interesatzen zait eta zer transmititzen duen aktoreak, hori da inportanteena.

Mitomanoa zara?

Zero patatero! Niretzat mitoak dira zientzialariak, ikerlariak, zirujauak... Horiek dira mirestu beharrekoak.

Zein da zure lanak eman dizun pozik handiena?

Norbait hurbiltzen denean "Eskerrik asko" esateko, "Aizu, zeinen ondo pasatu dudan!", edo hunkitu egin dela eta "Negar egin dut" esaten didatenean, hori da gure lanaren pozik handiena, istorioak kontatzea eta, istorio horien bidez, jendeari barreneko emozioak piztea, kultura zabaltzea, pentsaraztea...

Non hartuko nahi zenuke erretiroa? Uharte xarmagarri batean ala oholza gainean?

Uharte xarmagarrian esan beharko nuke, ezta? Kar-kar-kar, baina, tira! Ez da egia. Indarrak ditudan bitartean eta aukera dudan bitartean, antzezten jarraituko dut, bidea egiten.

Palindromoa

«Nik enara neraman amaren aranekin»

Irakur ezazu titulua berriz ere! Eta orain irakurri eskuinetik ezkerre!

Bitxia, ezta? Esaldi hau palindromoa da.

Zer da palindromoa? Aurrekoz atzera zein atzekoz aurrera berdin irakurtzen diren hitzak dira. "Arra", "ama" eta "amama" ... palindromoak dira.

Euskarak badu berezko gaitasuna honelakoak sortzeko: "eme", "ele bele" ...

Magia da hizkuntza, pixkatxo bat erreparatu behar zaio, hori baino ez.

Azaleko uretatik itsaso sakonetan murgildu. Eta bilatu. Zeren bilaketak beti aurkikuntzak baitira: "urre" "erru" izan daiteke, eta "neroni" "inoren".

Animalien izenetan unibertso aberatsa du palindromoak: "arratoi otarra", "erbi libre", "kauta katuak", "izarron orrazi", "karramarro horra marrak", "kilker ere klik" ...

Ze nekeza inori
atea irekitzea
eztikeria eta
ironia zekenez.

Esanik erruz
egi bat ta
bi gezurrekin
ase

Animatuta
bazen,
ezabatuta
mina!

Utzi
penak
Ane,
piztu

Adarreko akerra barreka okerra da

Zein da palindromo hitzaren sorrera? Palindrome, greziar hitzetatik eratorria da: palin (berriro) eta drom (dromein-etik dator eta bidea edo norabidea esan nahi du). Palindromo hitzak, beraz, berriro egin bidea esan nahi du.

Palindromoa antzinatik hainbat kulturatan landu izan den joko literarioa da. Hitz-jolasa da: irakurketaren bidean atzera eginez, hitzaren ispilua aurkitzea, inbertsioaren mekanismoen artean biribilena osatzea... Oro har, espazioak eta puntuazio-markak alde batera uzten dira esaldi itzulgarriak sortzeko. Hori dela eta, "aker oreka" balizko palindromotzat jotzen da.

Zenbakietan gertatzen denean, kapikua esaten zaio, 363, 45.654, 1.745.471... Cap i cua, burua eta buztana, katalanez.

K
kultura

Denbora pasak

Letra Zopa

Topa itzazu sei palindromo. Gogoan hartu noranzko guztietan aurki daitezkeela.

A	C	G	I	H	U	A	C	G	R	D	A
I	N	O	R	E	N	R	S	O	N	I	L
A	S	T	E	O	D	L	S	A	D	F	U
U	I	R	A	I	X	P	A	C	I	L	H
T	O	D	E	L	E	Z	R	F	K	L	A
O	S	A	V	R	J	U	I	O	R	Ñ	X
R	Z	D	H	D	A	Y	O	P	I	M	E
E	S	Y	K	N	L	Z	E	I	R	F	S
E	A	A	D	O	K	U	E	F	E	O	X
R	X	V	R	A	G	O	Z	R	K	P	U
O	Z	C	E	N	B	F	K	Ñ	I	L	A
T	Y	Q	V	A	M	X	C	V	O	O	A
U	T	A	R	A	Z	A	R	A	Ñ	A	H
A	D	L	S	R	U	I	P	L	V	W	U
O	U	A	C	G	E	S	F	A	B	E	L
H	G	L	N	O	R	T	X	C			A

Sinonimoak

Esanahi bera duten sinonimoak lotu.

Batek ez du bikoterik, jakingo duzu zein den asmatzen?

ENARA
ERO
EZTI
JAGOLE
ORATU
OZTA
AZERI
OSTU

LUKI
ZAINDARI
EBATSI
ELAI
DOI
PANPOX
HELDU
GOZO
ZORO



Gure langileak: Iker Soto del Amo



Iker Soto del Amo
Portugalete
31 urte
Ulibarriko teknologia arduraduna



Ikerren amak beti kontatzen du semeak txikitan kirol guztiak probatu zituela: futbola, pilota, waterpolo... baina utzi ez zituen bakarrak dantza eta folkloreoa izan zirela. Bost urte zituela, euskal dantzetan hasi zen, eta egun ere Portugaleteko Berriztasuna dantza taldeko kidea da. Antzeko zerbait gertatu zaio Ikerri informatikarekin.

Beti gustatu izan zaio teknologiekin trasteatzea. Etxeko ordenagailu zaharrarekin ibiltzen hasi zen mutiko gaztea, gerora informatika ingeniarietza ikasketak egin zituen. Azkenean, bi zaletasunak, euskaltzaletasuna eta informatika, uztartzeko aukera izan zuenean, ez zuen zalantzarik egin. Egundik Ulibarri euskaltegiko teknologia arduraduna da.

Iraultza informatikoa zurekin batera etorri al da Ulibarri euskaltegira?

Kar-kar-kar! "Iraultza informatikoa", ze hitz potentea! Gaur egun oso inportantea da teknologia, eta euskaltegiak aspaldian hartu zuen erabaki sendoa horren aldeko apustua egiteko eta talaian egoteko.

Zer nolako azpiegitura informatikoa dugu egundik euskaltegiko geletan?

Euskaltegiko geletan ordenagailua, pantaila eta proiektorea daude, besteak beste, eta orain hasiak gara ukipen pantailak jartzen. Ukipen pantaila hauek dira euskaltegiaren azken aurrerapausoa.

Hori al da Ulibarriko helburu nagusia, informatika aldetik?

Bai, ukipen pantaila gelako elementu bakarra izatea nahi dugu. Pantailak oso handiak dira, 65 hazbetekoak, arbel moduan erabili daitezke, audioak eta bideoak erreproduzitzeko erabili daitezke... Tamaina handiko tableta baten modukoak dira.


Zer eskaintzen die euskaltegiak arlo horretan ikasleei?

Saiatzen gara teknologian oinarritutako zerbitzu gehigarria ematen. Gaur egun teknologia oso erabilgarria da hezkuntzaren esparruan. Teknologia eskoletan txertatzeak dinamikoago egiten du ikaste prozesua.

Zein dira zure egunerokoak?

Egunero sarea, zerbitzaria, webgunea... zelan dauden frogatu egiten dut, korrean intzidentziarik egon den begiratu, irakasleek bidalitako mezurik egon ote den... Mantentze teknologikoan egunean egon behar da, zer berrikuntza dauden jakiteko, eta, egoki iritzi gero, eguneraketaren bat egiteko, programa berriren bat proposatzeko, azken bertsioa instalatzeko... Ekipoek egunean egon behar dute, eta beti saiatzen naiz irakasleentzako lan erreminta den hori prest egoten.

Euskaltegiak sei solairu ditu, eskaileretan gora eta behera, zure lana ez da hain zuzen ordenagailu aurrean egundik guztian eserita egotea, ezta? Ez! Ni nahikotxo mugitzen naiz egunean zehar.



kultura

Gure langileak: Iker Soto del Amo

Kalkulatu al duzu inoiz zenbat pauso ematen dituzun?

Ez! Inoiz ez dut aldean erlojurik eraman, ez nago batere eroso.

Nire urtebetetze egunean pausoak zenbatzen dituen horietako bat oparitu zidaten. Ea egunen batean ekartzen dudana, eta kalkulatu egingo dugu, kar-kar-kar!

Zein dira informatikari batentzako mehatxuak?

Euskaltegia mehatxurik handiena informazio galera da. Hori da gure beldurrik handiena. Horiei aurre egiteko metodarik zuzenena eta zehatzena segurtasun kopiak dira: bai hemen gure lokalean fisikoki, bai kanpoko zerbitzarietan. Nahiko babestuta gaude, beti saiatzen gara mehatxu horiei aurre egoten.

16 urteko hacker batek Pentagonoko sistema informatiko osoan sartzea lortu zuen... Birusen bisitarik izan al du inoiz euskaltegiak?

Izan dugu, bai. Birusak sartzen direnean, susto galanta da. Duela 3 urte hasi ziren erasoak, eta guk bat jaso genuen. Ransomware izena du birusak eta artxiboak bahitu egiten ditu. Euskaltegia birusak hainbat artxibo enkriptatu zituen, eta hackerrek esteka batean esaten zuten artxiboak bahituta zitutela eta liberatzeko kodea lortzeko ordaindu egin behar genuela.

Eneee! Espioi ukitua du zure lanak horrela kontatuta, ezta?

Kar-kar-kar! Antzik ere ez! Lehenengo momentutik kaltetutako ordenagailua saretik kendu genuen, kablea zuzenean deskonektatu ez zabalitzeko, eta ez zen datu galerarik egon, artxiboak errekuaratu ahal izan ziren.

Ordainketarik egin behar izan zenuten, erabilitako billete bete maletin, pelikuletan bezala?

Ez, ez. Kar-kar-kar! Horrelako kasuetan ordainketak Internet bitartez eta kontu ezezagun batean egin behar izaten dira. Baina ez genuen horrelakorik egin behar izan.



Dozenaka irakasle, 2.000 ikasle baino gehiago... eta teknologia berriak nonahi. Segururik, bakan batzuk trebeak eta gehientsuenak trakets samarrak, ezta? Kontatuko diguzu pasadizo bitxiaren bat?

Arazo fisikoak beti daude, ekipoak asko erabiltzen dira, ordu askoan piztuta daude, normala da. Baina, duda barik, giza arazoak dira xelebreenak. Irakasle askok eta askok "ez dabil audioa" esan eta, gelara joanda, hara non audioaren kablea USB portu batean sartu nahian ikusi izan dudana irakasleren bat! Kar-kar-kar! Edo bateriarik ez duen eta entxufera konektaturik ez dagoen ordenagailu bat piztu ezin izatea... Kar-kar-kar! Bozgorailuak amatatuta egotea eta audiorik ez entzutea. Kar-kar-kar! Halako "arazoak" bai, badaude, kar-kar-kar! Anekdotak moduan geratzen dira eta beti hartu behar izaten dira alde onetik.

Euskalduntzea behar beste "modernizatu" da? Nola dago euskal komunitatea ziberespazioan? Euskara 4.0 ote da?

Euskal komunitateak ziberespazioan badu presentzia, badaude hainbat txoko, eta hainbat erreminta euskaratuta, baina teknologiaren inguruan ez euskarak ez beste hizkuntza askok ez dute tokirik kasik, aspektu teknikoetan beti da ingeleza gainartzaile. Oraindik bide luzea geratzen da euskara 4.0 horretan sartzeko.

Gure ikasleak: Miguel Faundez Serkirkin



Miguel Faundez Serkirkin
Georgiarra
30 urte
Ulibarri Euskaltegiko ikaslea, B1 maila

Miguelen familiak ertsiki lotzen du Euskal Herria eta Errusia. Larisa amaren gurasoak Georgiarrak dira. Santos aitaren gurasoak, Zamorakoak eta Bilbotarrak izanik, Georgiara joan behar izan zuten. Han ezagutu zuten elkar Miguelen gurasoak eta bertan jaio eta bizi izan zen bera ere.

Istoria bitxia zure familiarena, ezta?

Gerrako umeak dira nire aitaren gurasoak, Guda Zibilean Errusiara joan ziren eta nire aita han jaiozen, baina berak ez du inoiz esango Errusian jaio dela, berak beti esaten du bilbotarra dela, kar-kar. Gurasoak han ezagutu ziren eta ni Errusian jaio eta bizi izan nintzen, 8 urterekin Bilbora etorri ginen arte.

Georgian bizi zinenean zein hizkuntzatan hitz egiten zenuen?

Etxean gazteleraz eta eskolan errusieraz eta ingelesez. Gero Bilbora etorri nintzenean, ikastetxean "zuk ez duzu euskaraz egingo" esan zidaten, salbuetsita nengoen. Eta nik: "zergatik? Zer da euskara?" Haserre nengoen, nik ere euskaraz hitz egin nahi nuen, eta nire kabuz ikasten hasi nintzen, errepikatu egiten nuen klasean entzuten nuen: "ni naiz, zu zara..." horrela ikasi nuen!

Eta amarekin zelan hitz egiten duzu?

Amarekin errusieraz, whatsapppe ere hitz egiten dugunean ez dit erantzuten gazteleraz idazten badiot. "Errusierraz jarri!" esaten dit. Alfabetoa errusieraz desberdina da, zirilikoa da, eta hor ibili behar naiz teklatura aldatzen berarekin hitz egiten dudana guztietan, enee!

Georgiara bueltatu zara?

Bai, amaren familia bertan dugu eta txikitako lagunak ere mantentzen ditut. Joan nintzen azkenengoan justu gerra zegoen ipar Osetia eta hego Osetiako konfliktua, eta pixkat beldurtuta bueltatu nintzen. Gaur egun internetez hitz egiten dugu.


Bizimodua desberdina al da?

Bai, oso desberdina da. Ez dago horrenbeste teknologiarik, ezta horrenbeste kontsumismorik ere, ezdute buruan kotxe berria erostea, mugikor berria erostea... Bestalde, parekotasunak ere baditugu, georgiarrak jatunak dira, eta euskaldunen moduan familiarekin eta lagunekin mahai baten inguruan bildu eta jatea asko gustatzen zaie. Hizkuntzan ere badira parekotasunak, Xabier Kintana, euskaltzaina, nire gurasoen laguna da, berak tesi bat idatzi zuen georgiera eta euskara konparatzen.

Euskaraz "borbila" esaten dugu eta georgieraz "gurpila" da, horrelako adibide asko daude.

Galdetzen dizutenean nongoa zaren zer erantzuten duzu?

Istoria luzea dela eta kafe bat behar duela erantzunak... Georgian jaiotako euskalduna naiz ni.



LITERATURA TXOKOA: Clousseau Panteragorri

Idazle aipagarriak



Joseba Sarrionandia

BA AL ZENEKIEN...?

- ... 1958an jaio zela, Bizkaiko lurreta herrian, eta orain Kubako hiriburuan bizi dela, Habanan?
- ... 1980an atxilotu eta kartzelaratu zutela, handik bost urtetara ihes egin zuela eta, ordutik aurrera, 31 urtez ezkutuan bizi izan zela, erbestetik idazten, harik eta 2016ko elkarrizketa batean bere bizilekuaren berri eman zuen arte?
- ... literatur genero ia guztiak landu dituela (eleberrigintza, ipuingintza, poesiagintza, saiakera, literatur itzulpengintza, e.a.)?
- ... kartzelan zegoelarik argitaratu ziotela lehenengo liburua, *Izuen gordelekuetan barrena*, 1981ean?
- ... birritan eman diotela Espainiako Kritika Saria, 1986an eta 2001ean, Atabala eta euria narrazio-liburuagatik eta Lagun izoztua eleberrigatik, hurrenez hurren?
- ... Euskadi Saria eman ziotela 2011n, Moroak gara behelaino artean? izenburuko saiakeragatik?
- ... haren olerkiak hainbat eta hainbat musikarik baliatu dituztela, abestiak egiteko (Mikel Laboa, Imanol, Oskorri, Nación Reixa, Jabier Muguruza, Fermin Muguruza, Alaitz eta Maider, Ruper Ordorika, Ken Zazpi, Petti, Eñaut Elorrieta, Berri Txarrak, Gose eta beste asko)?




Lagunek galdetu didate, "Aizu, Clousseau, eta zuk ez al duzu ikasleentzako libururik idatzi?"



Zergatik ez baduzu K Kultura Aldizkaria baliatzen horren berri emateko?"

Zuzen dabilta. Zergatik ez, bada?

Jakin ezazue, hortaz, A1, A2 eta B1 mailetakoko ikasleentzat liburutxo batzuk idatzi nituela duela urte batzuk Desclé de Brower argitaletxean. Denak izan ziren nire ikasle-taldearen abenturei buruzkoak.



Zazpi ikasle zirenez, Zazpikotea deitzen nien. Sei ale argitaratu nuen (zazpigarrenik ez zen egon): *Zazpikotea euskaltegian*; *Zazpikotea eta birus mugagabea*; *Zazpikotea sagardotegian*; *Zazpikotea barnetegian*; *Zazpikotea museoan*; eta *Zazpikotea sanferminetan*. Haiek ziren garaiak.

aldizkaria



aldizkaria



kultura

2020